

IZIARTXO

(Azkeneko indar-neurtzeetan aldeera irabazia.)

OBIETA SENDAGILLIAK ANDURAIN'TAR NARKISI, ALTZUYETA'N

Donibane Lohitzun'dik bertara (Laburdi'n)

JAUNA:

POZEZ esan nizuket zure bildurrak aldendu ditezkeela. Zure lagun Mendizabal'dar Xabier'ek, gutxienaz iru-lau aste etziñik egon biarko du, ta ondoren, geldi-geldiro ibilli, asieran beñepein, ausitako bere istar-ezurra ondo sendatu artian. Badakizu ezur-auste bat aspergarriya izaten dala. Bestela, gorputzez ondo dago, bañan geldirik ain luzaruan egon biarrak asarreturik dauka, ta bere onduan egotia, askotan ezta izaten atsegiña. Batzuetan, buruba makurturik, ausitako istarrari begiratubaz, egun osua igarotzen du. Illuntasun onen mende geratzen danian ezerk eztu bere biyotza alaitzen.

Xabier'en lagunik kufunena zu zera. idatzi zayozu, idatzi al dezun maizena ta bere biyotz illunpetuba al dezun guztiya alaitu ezazu.

*
* *

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.—Bilbao'n.

Garagarrilla'ren 9'an.

¡Xabier maitia!

Gaur goizian ire Sendagille Obieta jaunak idatzi zidakenez erorita artu deken miña eztek izan nik uste izan nian bezin aundiya. Zori txarraren mende gatxiok i ta ni, neronek ere aita gaxo zeukat, eta ezin utzi nezakek. Ezin juango nauk, ba, i ikustera, nere gogorik aundiye-na izango uken bezela. Bañan geldi-egon-biar aundiya dizkiatenez-kero al diaten idazki geyenak bialduko dizkiat ire biyotza zerbait alai-

tzeko. Eta egiya esatera ezer askorik etzeukat esateko Gure eguneroko biziera beti berdiña dek. ¡Idazlariya bañiñukek! Etxe zar au bere zuraje sendo, bere antsiñako sukalde, aurreko aldian daukan arizti bati begira dauden bere leyo zabalaz, bere aunditasun ederraz, edesti polit bat gertatu al izateko toki egokiya ukek. Udaran emengo itxas-aldeko aize legun ta biguñak eztik iñun berdiñik. Gure etxe zarraren aurrian, euzkelkutsu ederreko etxe aundi bat zeok, erdi-baserriya erdi-jauregiya ta bere apaintasun ta txukuntasunak laxter azaltzen dik bere nagusiya-ren aberastasuna. Etxe eder au bidetik bertara zeok, eta inguruban, sendo ta gogor, zutik zeuzkak zumar, aritz eta urkiyak, etxia zaintzen baleude bezela. Askotan, eguzkiya geldi-geldiro, itxas-aldian etzaten dan garayan, emezortzi-urte-inguruko urrezko illedun nexka gazte bat, bere ondotik txakurtxo bat dakarrela, etxe-aurreko belazian agertzen dek. Eta, eseririk, aingeru bat bezela antxen egoten dek. Nere leyua alde artara zeok, eta askotan leyuan luzaro egoten nauk.

Bañan gaurko naiko berriketa eman diat. Esaidak nola agoen! Esaidak, gañera, nolatan miñ artu uan: idatzi idak ba, al deken luzena.

*
* *

Mendizabal'dar Xabier'ek Andurain'dar Narkis'i.

Garagarrilla'ren 11'an

Ire idazkiya. nere maite Xabier, etorri zaidak Jainkuak bialdutako eskar on bat bezela. Ik dakiden bezela eniñuan oraindik txiki-txikitandik egun bat bakarrik ere oyan egon, ta orain..... ezin mugiturik—gogaikarriya dek au!

Nik miñ artu ondoren, ire idazkiya izan dek artu diaten lenbiziko gozakaya. Bera irakurriyaz poz-pozik egon nauk ordu-erdi batian. Ik ioken guztiya oso polita uan: ire baserri zarra, itxas-aldeko aize biguñña, zuaitzen abarrotsa..... guziya. Enian uste orren poliki idazten uanik!

Lotutako artz baten antzera asarreturik egongo nauk ire berriyak berriz artu artian. Gañera, bidetik beste aldeko, oraindik ezagutzen ezteken ñexka politaz zer-edo-zer esan biar diak. Bereizena? Nor dek? Gurasorik bai al dik?—Ik eztakik au guztiya jakitiak zenbat poztuko natxioken. Ezer gutxik alaituko natxiok, bañan zer-edo-zer, eta lenbailen, idatzi.

*
* *

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garrigarrilla'ren 12'an.

Egiya esatera, Xabier, neregain artu diaten lanbidia gaitza dek. Aurreko nexka gaztiaren berriyak kenduezkero ezer aundirik eztiat esateko. Idazten ari nauken bitartian antxen zeok bera, etxe-aurreko belazian txakur txiki jostalariyarekin jolasten. Nor dan?..... Bere izena?..... Bera dek Ameriketari aberastutako Edurki'tar Ander'en alabatxo bakarra. Amik eztiak. Anai bat Bayona'ko Ikastetxe batian, ta beste bat, zarrana, Ameriketari. Euzkotarrak, orain bizi diran etxeako jatorrak, izanarren Beko-Ameriketari luzaruan bizi izanak dituk. Alabak IZIARTXO izena dik: Edurki'tar Iziartxo. Izen polita, ezta ala? Ta bera nola ez polita izan orren izen polita izaaz?

Berri oyek guziyak LAREGAIN'go (au dek aurreko etxiaren izena) morroi batek eman zizkidak. Bañan, alik lasterren nere auzokuak ezagutu biar dizkiat. Eztek zail izango egun oyetako batian Edurki jauna edo bere alaba nere ibillaldiyetako batian nunbait arkitzia.

....Batek gutxiyena uste dikenian gertatzen dituk gauzak. Orain dala amar minutu ots egin zidatek. Jetxi nauk eta arkitu dizkiat nere aita ta Edurki jauna izketan. Edurki jauna gure etxera etorri dek gu auzokuok ezagutzera. Berrogei ta amabost urte-inguruko gizon goitu bat dek, gordin-antzekua, bañan elurra baño zurigoko bizarra dik. Ameriketari, gaztetik ara juanik, lur askoren jabe egiña dek, eta bere jatorrizko etxe Larregain'era etorriya dek, emen urte batzuetan egonaz, bere seme-alabari Euzkadi'ko edertasuna erakustera. Irten baño lenago Edurki jaunak nere aitari eskaera bat egin zio. Biyar berakin bazkaltzera etortzekuak omen dituk Donibane-Lohitzun'go bere ezagun batzuk. Ez al giñukek gu ere juango alkarrekin bazkaltzera? — Nere aita ezetzian jarri uan, bere gaxotasuna aitzekitzat azaldubaz; nere aitaren semiak, berriz, goxotasun guziyaz, pozik artu dik eskeintza.

Urreguan bada, esateko berriyen bat izango diat; edertasun ori aurrez-aurre ikusiko diat, eta..... egiya esatera bazeukat gogua!

Jarrai sendo, lagun zarra, ta berriz idatzi arte.— Istar-autsiya zertan zeok?

ISAAC LÓPEZ MENDIZÁBAL

IZIARTXO

(Jarraipena.)

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garagarrilla'ren 13'an.

Ona emen bazkaltzen bildu gaitugeanok: Irakasle zar bat, Donibane'ko Sendagille gazte bat eta Lege-gizon bizkor bat. Irakasliak zital xamarra zirudiken, bañan bestiak oso gizartekuak dituk. Emakumezko batzuk ere baituan, Aranatz jaunaren alarguna bere bi alabakin, politikak eta atsegiñak berak..... bañan Iziartxo!

Bazkaldarrak jua ondoen, etxeko jauna ta ni etxe-aurreko belazian zigarro bana erretzen geratu giñuan. Bai maitagarriya zegoala Iziartxo bere aitari zion maitetasuna azaltzen zioken bakoitzian! Berak eskeintzen zizkioken zigarruak, berak bere beatz legun ta lirañaz ekartzen zioken suba; bere soñeko zuri, bere urrezko ille, bere edertasunaz beterik, ikustekua zeoken, ta illunabarrian, eguzkiya erori zanian, aruntz-onuntz arin zebillela ikusiyaz, egitazko emakume bat baño amets goxo bat geyago zirudiken. Ayetako batian egin zerurontz asi izan bazan ez niñuan arriturik geldituko!

Bere aita zoraturik zeukak eta biyak zein baño zein geyago maite dituk. Arratseko amar t'erdik arte berakin egon niñuan ta alkarrekin geundela ikusi giñian ixil-ixillik, geldi-geldiro illargiya itxasotik jekitzen.

Ikusgarriya uan.—Zeren berri itz egiten giñian? Eguraldi ederraz..... eta ire berri.—Aurreko egunetan eguraldiya kaxkarra izan uan, euritsu ta aspergarriya, ta ontatik, ire miñ eta geldirik egon-biarretara gure berriketa eraman nian. Gero esan nitxuaten, i, nor eta nolakua itzan, atsekabe ontan agertu deken eramankizun ederra, ire Sen-

dagille Obieta'ri azaldu dioken esker ona. I aurrian egon ba-itzan ez uan ire buruba ezagutuko.—Iziartxo'k, ire berri, milla galdera egin zizkidaken. Uste diatenez, ire gauzak jakiteko gogoturik zeokela garbi azaldu zian. Oraindik goguan zeukat, bere lepo zuriya makurtubaz, nik nizkionak nola entzun zizkidaken. Egi-egitan ire gauzen jakin-naya garbi agertu zian.

Iziartxo'z zoratu egingo itzakek: arrokerigabeko edertasuna, biyotz bigun ta maitekorra dik noski, biyotza arpegiyaren antzekua izan oi omen dek-eta.

*
* *

Mendizabal'dar Xabier'ek Andurain'dar Narkis'i,

Garagarrilla'ren 17'an

Narkis! Iziartxo orrek gazte maitagarri bat izan biar dik; noski nere gogokua izango ukek.... nere gogokua dek dabaneko. Gazte onen berri lenbizikotik esan dirakenaz, nik etzekiat nola ta zergatik, nere biyotza bereganuntz jarri dek, eta Iziartxo'ren berri geroztik esan ditukenak nere gogua geyago ta geyago berotu ditek. Ik, beraz itz egitian iruditzen zaidak nere ametsetan ezagututako emakume batez itz egiten dirakela. Egiya esaten diat, bere erretratua, bere erantza bialduko baidakkek uste diat lenbizikotik ezagutuko nitekela. Bere liraintasuna, bere izket goxua, bere biyotz ona, bere urrezko illiak, bere begi illunak, guziya ondo ezaguna diat. Berak nere berri galdetu dik, beraz? Ta nere gauzak jakin nayan dek, noski? Arrigarriya dek.

Naiko par egingo ukek noski, esaten ba-diat gau askotan lorik egiten ez tiratela, i bizi aizen aurrian, bidetik beste aldera dagoen etxian nere buru ta nere biyotzak jarriyaz. Toki atsegiña izan biar dik. Orko itxas-aizaren gozotasuna emendik nabaitzen diat. Emenditxek ikusten diat Larregain'go etxe-jauna bere zigarrua erriaz etxe-aurreko belazian, emendik ikusten aut Iziartxo'rekin bazkalondotan egiten dituken ibilaldiyetan, itxas zabala, Matxixako'tik Bayona'raño, begiyen aurrian dezutela. Baita ere iruditzen zaidak ikustia zuek biyok goxo-goxo itz egiñaz illargiya ortze garbiyan illunabar geldi ta girotsu batian igotzen dan garayan—onezkero zuek biyok lagun on batzuek izango zeratelako, noski. Au guziya bururatuzian asarreturik jartzen nauk, eta, pozik, bat-edobat joko nitek. Ez al dek ik ikusi or, nexka gazte orren ingurutik iñor dabillenik? Eta Donibane'ko Sendagille gazte ura? Ez ote

dek Lege-gizona or nunbait ibilliko? Gauz guzi oyen berri zerbait jakin nai nitek eta, beraz, zer-do-zer al deken laxterren esan biar diak.

Bañan nola ditekek ordia, Xabier, Iziartxo'z, i oso txoraturik ez arkitzia? Ni beñepein iya-iyen natxiok. Aizak: ezin al dek bere etxetik bere erretrato, bere erantzen bat ebatsi neri bialtzeko? Berak antz eman baño lenago, lapurtutakua biartuko nitek. Eskerra aurretik, i lagun on bat aiz-ta.

*
* * *

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garagarrilla'ren 20'an.

Ez abil bide okerretik; alaxen dek, gure auzokuen lagun aundiya nauk. Larregain'go etxe-jauna ta nere aita, geyenian alkarrekin zeudek, gaur gure etxian, biyar ayenian, ta nik, gaur eta biyar eta beti Iziartxo'rekin izketa luziak egiten dizkiat. Bere edertasunak, bere argitasunak, bere ixiltasunak egunetik-egunera maitagarriak arkitzen dizkiat.

Galdetzen diak berak nolatan txoratu ez natxioken. Xabier!, egi-egiya esango diat: asmo orretan natxebilleken. Bera dek gaztia, aberatsa, iñork baño edertasun geyago beregan dizkik, bañan nere buruba txoratzeko, nik etzekiaten zer dan ura biar dik.

Gañera au onela ezpalitz, nere maitasunak eragozpen aundi bat arkituko likek. Bera maitatzia neretzat naigaberik aundiyena izango ukek; Xabier, arrituko aun ixil-gauz bat esan biar diat. Oker ote natxiok? Erorrek erabakiko dek.

Larregain-etxian bazkaldu nian eguneko illunabarrian gauz bat jarrri zitzaidaken buruban iñundik ere ezin kendubaz: i eroriyaz nola miñ artu uan esaten ari niñuan bitartian, Iziartxo'k begirik etzian nigandik kendu, neroni baño geyago, i, noski ikusiyaz. Lenago ere, au esan nian, ezta ala? Geroztik Iziartxo ikusi diat amar aldiz baño geyago, ta garbi antz eman zuat ezer eztikela gogoz artzen ezpada, i, ire arreba, edo irekin zerbait ikuzi biar duen gauzen bat. Beste zerbaitz itz egiten asten banauk bere begiyak itxasoruntz edo mendiruntz ziar-katuko dizkik, nere itzak entzuten eztizkikela garbiro azaldubaz. Ez al dek au arrigarriya? Ez, au baño ere arrigarrigua dek iri gertatzen zai-kena. Bañan nola ditekek, ordia, zuek biyok beñere alkar ikusi gabe, ta ain urruti egonarren, batak bestiari naitasuna artzia? Ta oyek guzti-

yak onela dirala, itzaz bakarrik itz egiten diatenian entzuten naun emakumiaz nola nai dek ni txoratzia?


Etzekiat iñor bere ingurutik ote dabillen. Donibane'ko Sendagillia ta baita Lege-gizona ere nozian bein etortzen dituk; bigarrena maizago. Atzo ere, au ementxen uan ta eniñukek arrituko Iziartxo'ren ingurutik ibiltzia. Bañan onek, nere iritzira, ikusten danez etziok gogo aundirik. Nolanai ere ezin ezer esan. Nik ikusi izan diat emakume bat urtietan ta urtietan gizon batez izugarrik esaten, ta azkenik..... berarekin ezkontzen. Sendagilliak ere, nere iritziz ezitik ezer aterako..... Bañan, oraindik nork zekik?

Erretrato, erantz bat oso ederra mai baten gañian zeukatek, bañan nik lapurtuko banikek laxter antz emango zio tekek. Ire gogua betetzeko al diaten guziya egingo diat, bañan enikek nai, noski, auzitan nere buruba lapurreta bategatik ikusi.

Idazki ondoren: Ementxen bialtzen diat usaidun osto medar bat, eta ondo gorde zak. Bai, beti bezela atzo ere ire berri itz egin giñian. Onetxek iya asarretu-azi natxiok.

ISAAC LÓPEZ MENDIZÁBAL

(Jarraituko da)



secular, pero logró refugiarse en una iglesia. Pidióse al Vicario general su extracción y entrega al brazo secular, conforme al *Motu proprio* de 1777, pero el Vicario negóse pretextando se trataba de caso mixto por la circunstancia de que el clérigo muerto estaba disfrazado. El embajador de Malta pidió al Papa que ordenase fuesen entregados los culpables al tribunal secular, fuesen clérigos o legos, para custodiarlos mientras se decidía el caso. Accedió Roma con la condición de que, formados los procesos, se remitiesen a Su Santidad, el cual comunicaría al Gran Maestre su ulterior pontificia determinación. El Gran Maestre creyó esto lesivo al principio y pidió mediasen Bernis y el duque de Grimaldi, que había sustituido a Floridablanca en la embajada cerca de la Santa Sede (1), pero no parece que lograra su propósito. La cuestión político-eclesiástica de Malta resultaba ya hartamente enojosa. Tantos celos de soberanía parecerían probablemente excesivos.

(Concluirá.)

MARQUÉS DE LEMA

(1) Despacho de Grimaldi de 18 de Mayo de 1780. Archivo Histórico Nacional, signatura 6.207.



IZIARTXO

(Continuacion.)

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garagarrilla'ren 22'an.

Ire azkenengo idazkiyak zerbait ikaratu egin natxiok. Bañan nola nai dek ordia, dioken bezela, oraindik beñere ikusi ezteken emakume batez, errañu batez, amets batez, txoratuba i egotia? Iziartxo iretzat amets bat bakarrik dek-eta. Nik etzaituztet asmatzen ez bata, ez bestia.

Eta gauz oyetan nere buruba luzaruan jarriyaz, esan diat nerekiko: ez ote ukek obeto izango gure berriketa oyei azkena ematia? Banan au ere ire burubaren argitasunari kalte egitia ukek, ume bat ez aiz-ta. Iziartxo'ri maitetasun aundi bat artu diok; ik uste dek ikusiko baukek, beraz txoratuko itzakela, bañan, gañera, erorren burubari diok, ire bu-ruketak erakutsi diteken ametsetik oso urruti egongo dala. Itz zuzen oyek goguan euki ditzak eta nik eztiat ezer ezkutatuko.

Atzo, nere aita ta ni, Iziartxo ta bere aitarekin batian ibilliyak gaituk. Iziartxo ta ni alkarrekin gatxioken ta nere burubari eskeñiya neukatxian ire izena nere ezpañetatik aterako etzala. Nere asmotik eroritzeko arrek egin dizkidaken alegiñak ikusiyaz, naiko jolastu nauk! Azkenian nere biyotz-gogortasuna ikusiyaz zertxobait zapuztu egin zaidak. Ni, alare, beti gogor. Etxerakuan, azkenik, eta nik oñ emanaz, ire berri itz egin diagu. Eniñuan gogoratzen iri esatia, Iziartxo Donibane'ra jua dala, antxen erretrato bat egitera, ta ongi atera ezkerro, bat ematia eskeñi ditela; onelaxe ire gogua, lapurretik gabe, egingo diat.

Ez, Xabier, usaidun ostua ez nian nik bialdu; ogei ta zortzi urteko mutil batek etziok bere lagun bati lorarik bialtzen; bañan ez ordia gauz orri indar geyegi eman: berak oitura dik onelako loriak ematia Donibane'ko Sendagilliarri, ta baita Lege-gizonari edo beste ezagunen bati;

IZIARTXO

(Continuación.)

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garagarrilla'ren 28'an.

Egi-egiya esatera uste diat ire istar-ausiyá indartzen ari dan bitartian ire burubari indarrak juaten ari zaizkala. Nere iritziya eskatzen diak eta ona emen garbi emana. Nere ustez usaidun ostuaz eskerrak emateko Iziartxo'ri idatziyaz ez ukek ondo egingo. Elikek ondo artuko. Berak ez au ezagutzen, nere bitartez baizik; beretzat i aiz eriañu bat, irudipen bat, amets bat, ta gauzik txikiyenak esnatuko likek. Noski, idazki ori bialtzen ba-idak emango zuat; ortara ere jarriko nauk bañan oker egingo dek.

Diokenez, makil bat eskuban artubaz, poliki bederik ibilli itekek, eta onera etorriko aizela Sendagilliak bere baimena eman bezin laxter. Eztek oraindik au egin biar. Ez al dek ezagutzen or aoken egun bakoitzaoren ondoren, Iziartxo'ren goguan indar geyagorekin agertzen aizela? Zalapartatubaz, guziya alperrik galduko ukek. Oso sendatu arte itso egin zak. Dana dala etzakela etorri, neri ezer esin gabe; bildur nitek bat-batetan emen azalduko ba-itzakek.

Iziartxo Donibanerra erretratuaren billa juan dek; lengo egunekua, zorigaiztoz, ez omen dek ondo atera, ta berriz egin biarran dek. Iru-ditzen zaidak zerbaitek naigabetuta daukala. Balitekek nere irudipen bat izatia, bañan..... Esango nikeken guziya esan gabe bukatu biar diat. Nere aitak ots egin ziak bere ibillaldiyan laguntzeko.

*
* *


Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Garagarrilla'ren 29'an

Atzo bialdutako idazkiyaren ondoren gertatutakua iri esateko zalapartan itz oyek jartzen dizkiat. Kezka izugarrietan natxiok; gauz bat bakarrik zeok garbi; eztek, inñundik, onera etorri biar. Iziartxo'k bere aitari guziya esan zio! Orain dala gutxi bere baratzan ikusi diat, eta ona emen, zalapartan, esan zizkidaken gauz ixillak. Donibane'ko Sendagillia bere ingurutik aspalditik omen zebillek, ez berak biderik eman diolako, baizik aitag, mutil gaztiaren aitaren lagun zarra bera, ori ongi ikusiko lukelako. Atzo—nere ate-aurrian geratu zanian, bere biyotzeko naigabeari antz eman nitxuan —*Larregain'go* nagusiak Iziartxo'ri zerbait aren gogua egitera eraman-azi nai izan dik. Iziartxo'k gogorki esan zio bere aitari, etzuela ura maiteko, ta azkenik aitortu ziok..... egiya esatera etzekiat zer aitortu dion. Zana zala aita asarreturik utzi zian. Eta gure bi etxe artian dagoen laguntasuna bildur nauk ausiko ez ote dan. Onezkero asiko itzan marruka: «Inpernuko etsayak eraman ditzala zuen etxe biyak!». Ik naiko ukek jakin, noski, bideko beste aldetik zer gertatzen dan. Esango diat, lagun zarra. Oraindik Uztaila'ko bigarren aste arte emen egongo gaituk. Bañan etzakela nere billa etorri..... *Larregain'go* Nagusiya etxe-aurreko belazian asarretutako arpegiz aruntz-onuntz zebillek. Biratzan alkarrekin egon giñuanetik eztiat Iziartxo ikusi.

ISAAC LÓPEZ MENDIZÁBAL

(Amaituko da.)



IZIARTXO

(Amaya.)

Andurain'dar Narkis'ek Obieta Sendagilliarri.—Bilbao'n.

Garagarrilla'ren 30'an.

Ezereren indarrik Xabier'en gain baldin badezu, alegiñak egin biar dituzu onera eztedin etorri. Geroxeago esango dizkitzuten emen izan ditugun gertaera batzuegatik biar-biarretakua litzake nere lagun orrek emen oñik ez jartzia. Au esaten dizutenian ondo badakit etorrera orrek ondorengo txarrak ekarriko lizkiokela. Egizu, ba, Bilbao'n bertan geldi dedin, edo beste noranai jua dedilla, eta — berari ta neri — laguntz aundi bat egingo diguzu. Nere izena, noski, eztezu zure itzetan ezertarako sartuko; zuk naikua ezagutzen nazu antz emateko au guziya eskatzen dizutela biar-biarretakua dalako ta, gero, zergatik dan esaten dizutanean ondo egin detala, noski, esango dirazu.

Aurretik eskerrak ematen dizkizu zure lagun.....

*
* * *

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Uztaila'ren 1'an.

Onera etorrela esanaz egin diraken idazkiya oraintxen artu diat. Bai-aldakik zer egitera uan? I onara etortzia iretzat eta berarentzat kaltegarriya izango ukek. Larregain'go etxe-jauna asarretuko ukek, eta onek Iziartxo asko maite izanarren, aren gogua ez egiñezkero, etzekiat zer egingo luken. Gañera Obieta jaunak esan zidak oneraño etortzeko oraindikez aokela ondo. Ta esaten zidak itxas-aldeko aiziai kalte aundiya egingo likekela, ta oraindik or egon-biarrian aizela. Sinista yok eta sinista nauk.

Ik ez ukek, noski, ni izango bere aitak gogor artzia. Bañan onela gertatuko ukek i onara etorriko ba-itzakek.

TELEGRAMAK

Andurain'dar Narkis'i.

Artu diat idazkiya. Obieta'z asarreturik natxiok. Onezkero zutik egon biar nitek. — *M'dar X.*

Mendizabal'dar Xabier'i.

Ago geldirik. Guztiya alperrik galduko ukek. Ez ezer egin nere berriyak artu arte. — *A'dar N.*

Andurain'dar Narkis'i.

Ikilka orrera iritxi nindekek. Ikusi biarretan natxiok. — *M'dar X.*

Mendizabal'dar Xabier'i.

Etortzia alperrik dek. Aitak Iziartso itxiyan jarri dik. Ez ukek ikusiko. — *A'dar N.*

Andurain'dar Narkis'i.

Itxi egin duela? Or nauk berialaxe. Eguardiko *expres'ian* aterako nauk. — *M'dar X.*

*
* *

Uztaila'ren 3'an *expres'a*, artsaldeko bostetan, Donibane'ko Gelditokira iritxi zan garayan mutil gazte bat, errenka, bere morroi baten beso-eskubiyen indar-artubaz atera zan, ta zaldi-gurdi bat artubaz, eskatu zuen *Altzuyeta'ra* eramatia. Gelditokitik ordu-erdi batera zegoen etxe aundi baten aurrera iritxi ziranian, mutil gaztia, naiko lanekin, jetxi zan eta beriala bere begi bizkorrez inguru guzira begiratu zuen, berak zekiyeen gauz baten bilia bezela. Poliki-poliki, al zuen bezela, Xabier'en etxeraño jua zan. Morroi zar bat atera zitzaion esanaz Xabier, aurreko egurietik, Bayona'ra juana zala, bañan bere aita etxian egonik ikusi zezakeala. Etorri-berriyak etzuen au ontzat artu, ta galde-tu zuen ia Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'entzat zerbait ez al zuen utzi. Unetxo bat alde egin ondoren, morroi zarra berriz agertu zan idazki onekin:

Andurain'dar Narkis'ek Mendizabal'dar Xabier'i.

Uztailla'ren 28'an.

Egin diatenaz ikaratuta natxiok. Nere idazkiyak iri bialtzian nere asmo bakarra ire aspertu-aldiyak arintzia izan uan. Al nun bezin ondo egin nian, nere asmo ona ezagutuko ualakuan; ez nian bada, beñere uste izango ik, azkenik, gauza egitan artuko uanik. Zer esango diat ba? Lotsaturik natxiok..... gaizto bat nauk. Zerbait i jolasteko gezurrezko edesti ori sortu nian ta, noski, uste baño obeto egin diat..... Asmo ona nianezkero barkatu biar diak.

Gauz oyen berri nere aitak itzik ere etzekik: etzayokela bada ezer-txo ere esan. Nik, bildurrez, ire asarria ez ikusteagatik alde egiten diat, nere lagun zar Xabier, bideko beste aldetik eztalako izan ta eztalako arkitzen ez etxerik, ez belazik eta ezta ere IZIARTXO'rik.

ISAAC LÓPEZ MENDIZÁBAL

T. B. Aldrich'ek ingeleraz idatzitako irakurgai batetik antolatuba.

